ELKARRIZKETA EVA EGIZABAL "GIZAKIEN LURRA"KO ORDEZKARIA

# Arrasate PRESS

2000.eko urtarrilak 28
481. zenb.



# Txotx!

IKUSPEGIA: IKER EZPELETA • EUREN IKUSPUNTUTIK: JOSE RAMON ZUBIZARRETA
ORAIN ETA HEMEN: INDUSTRI MUSEOA • KIROLAK: JUDO TXAPELKETA

# MILURTEKO BERRIAREN IKASTOLA




**GURE IKASTOLETAKO BERRI IZATEKO ARRASATEKO BULEGOAN INFORMATU ZAITEZ**




**Ordutegia:**



Tel. Mugikorra: 636 62 14 13
(Bulego Ordutan)

Arizmendi
943 79 31 32

# Lehenengoz



Iker Ezpeleta

Aurrekoan, astekari honetatik dei bat jaso nuen. Kolaboratzaile gisa parte hartu nahi nuen galdetu zidaten. Kolaborazioa "ikuspegian" hilero artikulu bat idaztea litzateke. Astekari honen hirugarren orri honetako iritzi artikuluan parte hartzea.

Hasiera batean, gaurko joera nagusiari segituz, horrelako jaleo batean zergatik sartu behar nuen pentsatu nuen. Baina gero arrazoi pare bat etorri zitzaidan burura, hemen idaztera bultzatzen nindutenak. Argi ikusten denez, hauek nagusitu ziren.

Alde batetik komunikabideez betidanik entzun eta egin izan dudan kritika dago; hau da, mezu ofiziala bakarrik zabaltzen dutela, zentsura eta autozentsura ("bestela lanetik botako naute"...) eguneroko kontuak direla, ... azken finean desberdina den guztia ezkutatu eta gaitzesten dutela edo okerrago dena: manipulatu, kriminalizatu eta folklorizatu egiten dutela. Okupen kontuan argi ikusten da hori.

Hau horrela izanda eta hemen idazteko baldintzak ikusirik, zentsurarik ezak batez ere, idaztera bultzatu nau.

Baina arrazoirik garbiena eta aldizkari honi zuzenean lotua dagoena, askok (nire inguruan bai behintzat) *Arrasate Press*i leporatzen dizkiogun "Horikeria" eta sakontasunik eza dira.

Orain dela aste batzuk drogen inguruan atera zen azala eta barneko testua ("Asteburuetako denborapasa=arrastoak" ikusten zen hura) honen adibide garbia da, nire iritziz.

Kasu hau, (baita beste batzuk ere, egia esan), komentatzen nuelarik izan nuen erantzuna ere, betikoa. Bai, agian egia zela esaten nuen, baina kritikak, bideratu ezean, ez zuela inolako baliorik. Oso erraza zela holakoak botatzea eta ezer ez egitea eta interesa nuenez gero, jotzeko *Arrasate Press*era, bertan gustura hartuko nindutela, nahiz eta kritikatzera joan. *Arrasate Press* aldatzeko eta hobetzeko era, horrelako gauzak bertan idaztea zela.

Gai honek gogora ekartzen dizkit askotan gaztetxeari buruz entzun ditudanak. Oso funtzionamendu txarra duela, gutxi batzuen kontua dela eta zela funtzionatu beharko lukeen (kontuan hartu gabe ez dela gaztetxera sartu ere egin) eta inoiz ez dela gaztetxea gauzatuko bere jokamoldearekin. Kritika hutsalak hemen ere.

Bukatzeko, esan beharra dago kontu hauek guztiak oso polit gelditzen direla, baina ez dutela inongo baliorik nork bere buruari egin beharreko kritikarik gabe; hau da, autokritika guztiz beharrezkoa dela. Gai polita hurrengo baterako!

*Arrasate Press*i eskerrak ematea besterik ez zait gelditzen, eskaintzen didaten aukera honengatik; eta zuri, irakurle, nahi izanez gero, hemen hilabetero elkar ikusteko aukera dugula. Besterik ez. Datorren hilera arte. ■

**Interesa nuenez, *Arrasate Pressen* gustura hartuko nindutela nahiz eta kritikatzera joan**


ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
**Argitaratzailea**: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net

**Laguntzailea**: Arrasateko Udala. **Zuzendaria**: Marijo Deogracias. **Kazetariak**: Ubane Madera,Maider Osa, Leire Kortabarria. **Publizitatea**: Nerea Zallo,Arantzazu Lagunilla, Arantzazu Arroiabe. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Zuzentzailea:**: Arantzazu Loidi. **Administrazioa**: Agurtzane Gainzarain, Maite Urriolabeitia (Tel.: 943 71 23 90) **Diseinua**: Maddi Trutxuelo. **Asteburuetako berriemailea:** Monika Belastegi. **Kolaboratzaileak**: Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, Karmele Perez, Jose Mari Velez de Mendizabal, Iker Ezpeleta. **Banaketa arduraduna**: Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Lege-Gordailua**: 1124/88. **ISSN**: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia**: Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

**Azala**: Maddi Trutxuelo.

Arrasateko Udalaren laguntzaz
Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzaz


*"Industri museoarena asmo hutsa da oraingoz, oso asmo ona; gure ondorengoek Arrasateko industriaren historia zer izan den jakin dezaten".*

**Xabier Zubizarreta**

## 2.194.002.132

**pta.ko aurrekontua aurkeztu dio Arrasate Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari, herriaren mendebaldeko saihesbidea egiteko.**

Proiektu horrek Olandixoko tunela egitea aurreikusten du. 2000. urtea amaitu baino lehen saihesbidea egiteko lanak adjudikatuta egotea eskatu dio Udalak.

ITURRI ONETIK

## Uarkapeko partidak

Urtarrilaren 31n, astelehenean, hitzordua daukate Uarkape Udal Pilotalekuko arduradunek eta pilota enpresetako ordezkariek. Helburua pilotalekuan egin beharreko pilota partiden egitarauak nondik nora jo dezakeen zehaztea da. Aukea da pilotalekuaren kudeatzailea eta euren iritziz, pilotalekuaren ustiaketa egokia bilatu beharra dago, pilotalekua ez hipotekatzeko. Herriko pilota taldeak egin behar duen pilotalekuaren erabilera ziurtatu beharra dago.

Horrez gain, astelehenean erabakiko du Aukeako zuzendaritza batzordeak pilotalekuko tabernaren ustiapena nork egingo duen. Hiru aukeraren artetik izendatu beharko du arduraduna.

## GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

**Ostirala, 28**
• Morales, San Andres.

**Larunbata, 29**
• Azkoaga, Ferrerias.

**Igandea, 30**
• Azkoaga, Iturriotz.

**Astelehena, 31**
• Korkuera, Musakola.

**Asteartea, 1**
• Irizar, Erguin.

**Asteazkena, 2**
• Amezua, Santa Marina.

**Osteguna, 3**
• Zabala, Zarugalde.

## BEHARREZKO TELEFONOAK

**Eritetxeak**
Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Igualatorioa .......... 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) .......... 943 79 39 00
(emakumeak) .......... 943 79 44 11
Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11

**Larrialdiak**
SOS Deiak .......... 112
Gurutze Gorria .......... 943 76 55 76
DYA .......... 943 78 71 57

**Anbulatorioak**
Guardiako medikua .......... 943 46 11 11
Arrasate
• Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria ... 943 03 52 50
• Espezialitateak .......... 943 03 53 11
• Ikuskatzailea .......... 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak: ... 943 03 53 11
Aretxabaleta .......... 943 79 74 58
Aramaio .......... 945 44 53 40

**Anbulantziak**
Gipuzkoako anbulantziak 943 45 87 44

**Udaltzaingoa**
Oñati .......... 943 78 04 11
Bergara .......... 943 77 91 06
Arrasate .......... 943 79 14 39
Aretxabaleta .......... 943 79 10 52
Eskoriatza .......... 943 71 44 07

**Ertzaintza**
Arrasate .......... 943 79 71 99

**Suhiltzaileak**
Udal taldea .......... 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ... 088

**Matxurak**
Urak (udal zerbitzua) ... 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) .. 943 12 01 62
Gasa .......... 900 40 05 23
.......... 943 79 78 44
.......... 943 79 76 78

**Garraioak**
Taxiak .......... 943 79 12 22
PESA. .......... 902 10 12 10

**Hirugarren adinekoentzako zentruak**
Iturbide Egoitza .......... 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

**Monterron liburutegia**
Monterron .......... 943 77 01 05

**Irratia**
Arrasate Irratia .......... 943 79 58 77

## ARRASATE HERRIARI

Bi arrazoi nagusi ditugu Euskal Presoak Euskal Herrira Orain! Gazte Ekimeneko kideok artikulu hau idazteko: bata, arrasatearrei eta bereziki dendari eta merkatariei gure eskerrona adieraztea, Gabonetan presoen aldeko ekintzetan izandako partehartzeagatik. Bestea, aldiz, Baterako kontzentrazioetan PNV-EAJ alderdi politikoko ordezkaririk agertu ez izana salatzea.

Jadanik guztiok konturatu gara Arrasateko denda eta komertzio gehienetan Euskal Presoak Euskal Herrira dioen karteltxoa ikusgai dagoela. Dendarien jarrera ona dela eta, eskerrak eman nahi dizkiegu proiektu honetan laguntzeagatik. Dena dela, denda batzutara ez dela kartelik heldu eta horregatik, nahi duenak, eskuragarri izango ditu honako lekuotan: Lagunilla tabernan, Batzokian eta Hire liburudendan. Bestalde, azpimarratu nahi dugu ekimen hau ez dela Gabonetako kanpaina soila, giza eskubideen aldeko borroka baten hasiera baizik. Hori dela eta, helburua lortu arte, karteltxoa mantentzea beharrezkoa dela uste dugu.

Baina batzuren jarrera txalogarria den heinean, beste batzurena negargarria eta salatzekoa da, PNV-EAJ kasu. Batera plataformaren helburua PNV, EA eta EH bezalako alderdiek adostu eta sinatu dituzte. Baina PNVk, antza, atxikimenduaz dena konpontzen dela uste du, eta hori ez da horrela. Gure ustez tamalgarria da presoen gaia bezalako arlo serio batean hain konpromiso gutxirekin jokatzea. Kontzentraziorako egindako laupabost deialdietatik, bakar batean ere ez dira elkartasuna adieraztera etorri. Beraz, alderdi honen jarrera salatu nahi dugu, jadanik ordua baita mobilizatzen hasteko!

*Euskal Presoak Euskal Herrira Orain!*
*Gazte Ekimena*

## HITZEN JOLASA

Azken aldian gure hizkuntzak dakarkigun hainbat hitz aldaketak zeharo lekuz kanpo utzi nau. Ez dakit liseriketa eta apoarmatu hitzekin hasi nintzen arraro somatzen, baina partida eta batez ere, "auzoak gara" ezin ditut jasan. Kartatan partidak jokatu izan ditut, baina futbolera orain arte partidua ikusten joaten nintzen.

Auzoan uste nuen auzokoak bizi zirela eta ez "auzoak".

Baina orain artekoa gutxi ez balitz, gure eskualdeari Deba Garaiaren ordez, Debagoiena deitu behar omen zaio. Eskualde honetan maiz agertzen zaigu Garaia hitza, toponimian nahiz abizenetan eta honen gaztelaniazko baliokide "Alto" hartzen nuen, garaierak "Altura" esan nahi duen bezala.

Argi dago, gure etorkizunerako Euzkadin askoz eta gauza gehiago aldatuko direla, baina nire ezjakintasunean gaur egun sortzen zaizkidan galderek ere bere lekua beharko dute. Zalantzarik gabe, norbait hitzekin jolasean ari da.

*FJZ*

Gili Gili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

UGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

M
MEMESA
Industria hornidurak
Tel. 943 71 24 25

# Zer gertatuko da Errealarekin?

*Talde txuri-urdina zuzenean behera jaisteko lekuan dago sailkapenean*



**Jose Maria Iturbe**
**(58 urte)**
**langilea**

Alavesi irabazi egingo dio, baina ez dut uste txapelketa goian bukatuko duenik. Bigarren mailan ikusten ez badugu...



**Rosa Maria Priego**
**(52 urte)**
**etxekoandrea**

Ez dakit zer gertatuko zaion, futbolari buruz ez dut tutik ere ulertzen eta. Ez zait futbola batere gustatzen.



**Jose Antonio Gallastegi**
**(74 urte)**
**erretiratua**

Aterako dira aurrera. Nik hala uste dut behintzat.



**Jesus Fernandez**
**(62 urte)**
**erretiratua**

Ez zait futbola batere gustatzen. Futbol zelai guztietan tomateak landatu behar lituzkete, beharra dugunontzat, hainbeste milioi jan beharrean.



**Jon Navascues**
**(30 urte)**
**ikaslea**

Oso kalendario txarra dute orain. Oso jende serioa egon da betidanik Errealean, baina dena dela, larri ibiliko dira.



**Ana Unzalu**
**(52 urte)**
**etxekoandrea**

Nik behintzat ez dut nahi ezer txarrik gertatzerik. Bigarren mailara ez jaistea espero dut. Animatu egin beharko ditugu jokalariak.



**Maria Bermejo**
**(48 urte)**
**langilea**

Nik al dakit zer gertatuko den Errealarekin... Irabaztea gustatuko litzaidake, eta txapeldun geratzen bada, hobeto. Baina ez dut futbolaz ulertzen.



**Karmele Aspiazu**
**(36 urte)**
**langilea**

Nire ustez, eutsiko dio. Itxaropenik ez dugu galdu behar.

MARKO-JARTZEAK
ALDEDI
Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

CONCEPCION TAMAYO
DERMATOLOGOA
ASEGUROAK
Maalako Errabala, 23-2A • ARRASATE
Tel.: 943 77 05 57 • Txanda aurrez eskatu

## 28 ostirala

**■ ZINEA**

*House on Haunted Hill*, 19:00 eta 22:00, Alai zineman.

**■ AL-ANDALUSEK 10 URTE**

Al-Andalus Kultur Elkartearen 10. urteurrenaren ospakizun ekintzak aurrera doaz. Gaur, goizeko 11:00etan hasiko dira ekitaldiak, ordu horretan Lasarteko kultur elkarteari harrera emango baitiote Al-Andalusekoek. 15:00etan anaitze bazkaria egingo dute bi taldeek. Eta azkenik, 18:30etan Al-Andalus eta Lasarteko hainbat taldek ekitaldia eskainiko dute.

**■ MUS TXAPELKETA**

Arrasateko Alkartetxeak bere XI. Mus Txapelketa ospatuko du. Ondoren, afari oparoa izango da. Alkartetxean, 22:00.

## 29 larunbata

**■ ZINEA**

*Tarzan*, 17:00, eta *House on Haunted Hill*, 19:30 eta 22:00, Alai zineman.

**■ ALBOKA IKASTAROA**

Udaleko Gazte Zerbitzuak antolatu duen alboka ikastaroaren hasiera. Larunbat arratsaldero izango da, Arrasate Musikalen, 17:00. Matrikula 3.000 pezeta kostatzen da, 2.000 ikasle edo langabeentzat. Izena emateko edo argibide gehiagorako, Gazte Bulegoan, tel. 943 77 00 65.

**■ DIAPOSITIBAK BESAIDEREN ESKUTIK**

Besaide mendizale elkarteak diapositiba emanaldia antolatu du. Pirineoak eta Alpeak izango da gaia. Besaideren egoitzan, arratsaldeko 19:00etan.

**■ JAM ARETOA**

Punk estiloko kontzertu hirukoitza ospatuko da Jam Aretoan. Cockney Rejects punk talde britaniarra izango da eskaintza sendoena, 10 urteren ondoren elkartu egin baitira berriro taldeko kideak. Suburban Rebels eta Street Bastards taldeek ere joko dute. Bergarako Jam aretoan, 22:00.

## 30 igandea

**■ ZINEA**

*Tarzan*, 17:00, eta *House on Haunted Hill*, 19:30 eta 22:00, Alai zineman.

**■ SAN FELIPE APOSTOLEN BATZARRA**

San Felipe Apostol elkartearen Batzar Nagusia. San Viator Ikastolaren egoitzan izango da, eguerdiko 12:15etan. Bertan, iazko memoria eta kontuak irakurri eta onartuko dira, aurtengo aurrekontuak onartu eta Zuzendari Batzordea berrituko da. Aurretik, 11:00etan, hildako bazkideen aldeko meza izango da San Juan Bataiatzailearen Elizan.

## 31 astelehena

**■ ZINEA**

*House on Haunted Hill*, 19:00 eta 21:30, Alai zineman.

## 1 asteartea

**■ ZINEA**

*House on Haunted Hill*, 19:00 eta 21:30, Alai zineman.

**■ OPIL DASTAKETA**

Ogi eta gozogintza arloko Gorrotxategi enpresa banatzaileak dastaketa irekia antolatu du. Bertan, Bergarako enpresak ogi eta opil arloko produktu berriak aurkeztuko ditu. Mondragon Hotelean, arratsaldeko 16:30- 21:30.

### San Balerio jaiak

Gaurtik hasita eta iganderarte
tuko dira Meatzerreka auzo
Balero jaiak. Egitaraua pil
dago: jaien hasiera 20:00etan
go da, eta 21:00etan auzo
izango da, bertsolari eta dantz
ekin. Hilaren 2an San Bal
XIX. Mus Txapelketa ospatu
17:00etan, Meatzerreka Elk




IRATI TABERNA
Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE

# 3 osteguna

■ **ZINEA**

*House on Haunted Hill,* 19:00 eta 22:00, Alai zineman.

rteote bakoitzak 3.000 pezeta ordain-
olbeharko du, eta 16:30erarte eman
il-l izango da izena. 30.000 peze-
taixapela eta garaikurra irabaziko
o-l txapeldunak. Horrez gain, fut-
tza, erromeria eta txarri harrapa-
ala izango dira, besteak beste. Eta
tuldean, jaiak modu onean amai-
ko, buruhandiak, 14:00etan.

■ **SAGARDO EGUNERAKO TXARTELAK**

AEKk Sagardo Eguna antolatu du otsailaren 12an Hernanin eta parte hartzeko txartelak otsailaren 8ra arte izango dira salgai, 4.000 pta.n. Txartelak erosteko, jo Erdu AEKren egoitzara. Argibideak: 943 77 03 69.

■ **ERROLDA ZERRENDA IKUSGAI**

Urtarrilaren 31a arte egongo dira ikusgai martxoaren 12ko Gorte Orokorretako Hauteskundeetarako erroldak udaletxe azpiko arkupetan. Erreklamazioak egiteko 9:00-21:00 bitartean jo daiteke udaletxera

■ **TXALAPARTA IKASTAROA**

Zabalik dago Gazte Zerbitzuak antolatu duen txalaparta ikastarorako izena emateko epea. Ikastaroak otsailaren 11tik maiatzaren 13ra arte iraungo du. Kike Dapena eta Aitor Garcia dira irakasleak eta hastapen eta sakontze mailak emango dira. Matrikula 2.000 pta kostatzen da. Argibideak: 943 77 00 65.

■ **NAN BERRITZEA**

1091 eta 1190 bitarteko zenbakidun NANak berritzeko eguna urtarrilaren 28an da. IMIren lokalean izango da, 9:45etatik 12:15erarte.

■ **ESKUBALOI IKASTAROA**

Eskubaloi jokalari eta entrenatzaileei zuzendutako ikastaroa antolatu dute Deba bailarako euskara eta kirol zerbitzuek. Jose Julio Barrenetxea izango da irakaslea eta eskubaloiko jolas aplikatuei buruz arituko da. Astelehenean izango da, Bergarako Labegaraietako Kiroldegian, 19:00etan. Izena ematea, Bergarako udaletxean, 943 77 91 67.

■ **GOIKOBALUREN DEIALDIA**

Goikobaluk deialdia egiten dio eurekin abestu nahi duen edonori. Goikobalu Txikiren entsaioak asteazkenero, 19:30-20:30 eta ostegunero, 19:00-20:00 izaten dira. Goikobalu Gazteren saioak, astelehenero, 17:00-18:00. Eta Goikobaluko nagusiek asteartero, 21:00-22:00, Arrasate Musikalen, eta ostegunero, 20:00-22:00 izaten dituzte entsaioak. Gazteluondoko Ikastolako aretoan izaten dira entsaioak.

■ **GURASOENTZAT HITZALDIAK**

"Ikasketa Ohiturak eta Lan Pertsonalaren Ardura" gaiari buruz gurasoentzat bi hitzaldi antolatu ditu Institutoko Guraso Elkarteak. Emailea Javier Lopez psikologo eta pedagogoa izango da. Hilaren 1 eta 2an, Institutoan, 16:30etan.


ESTELLA ORTOPEDIA

Javier Estella, ortopediako teknikari tituluduna

*Osakidetzarekin eta Lagun Arorekin hitzartua*

**Etxerako laguntza teknikoak**

RPS 421/97

- Eusteko sistemak
- Garabiak
- Eskaren aurkako airezko koltxoiak
- Segurtasun izarak



**Matxiategi, 5 • BERGARA • Tel.: 943 76 19 63**



***Martxoaren 8ko IV. kartel lehiaketa***

"EMAKUME! HARTU HITZA ETA ERABAKIA"

**Saria:** 70.000 pta (-PFEZ)
**Zure lana aurkezteko epea:** otsailak 18
**Oinarriak:** Arrasateko Udaleko Emakume Sailean.

ARRASATEKO UDALA

**Emakume Saila** ■

Berri gehiago 943 79 09 00 edo 943 79 41 39 telefonoetan.

## USTEAK USTE

### *Arrasateko aztarnak*

**Iturriotz iturria, "igelaren iturria", aztertzen omen dabiltza Foru Aldundian. Arrasateko Udalaren eskariz ari dira teknikariak ikerketa egiten. Dirudienez "igelaren iturria" iturri izan aurretik errota izan omen zen. Orain ikusten diren gangak ez dira apainketa hutsa; teknikarien ustez, iturriaren gainean zegoen errota eusten zuen egituraren zati dira eta.**

**Union Cerrajera Arrasateko historiaren zati garrantzitsua izan zen bezala, badirudi enpresa baino lehen ere leku horretan herriaren historiaren zati handi bat egin zela.**

**Hori dela eta, Udalak interesa dauka aztarna horiek errekuperatzeko. Asko dira gure historia zaintzeko egiten diren proiektuak. Guztiontzat da interesgarria gure arbasoen historia ezagutzea eta honelako ekimenak txalotu beharko genituzke, merezi baldin badute behintzat. Eta badirudi igelaren iturrikoak merezi duela. Batez ere, garai bateko mondragoetarrak nola bizi ziren jakiten laguntzen digun heinean.**

**Marijo Deogracias**



# Arizmendi ikastola

*** Jose Ramon Zubizarreta**

Iaz esan bezala, aurreikusita genituen urratsak ematen ari gara. Almen, San Frantzisko Xabier, San Viator eta Umezaintza ikastolak batzen dituen Arizmendi kooperatibak eman ditu dagoeneko bere lehen urratsak.

Proiektu hau lantzen hasi ginenean lau ideia nagusi genituen. Lehenik eta behin, gurasoek duten informazio beharra izan genuen hizpide. Seme-alaben heziketa gauza oso garrantzitsua dela kontuan izanda, ezinbestekotzat jo genuen gurasoek euren haurrak hezitzeko dituzten aukeren berri izan behar zutela. Horren harira informazio bulegoak ireki genituen. Guztira hiru bulego: Arrasaten (Sebero Altube plazan), Aretxabaletan (Larrin plazan) eta Eskoriatzan (Jose Arana ikastolan). Iazko balorazioa egiterako orduan, oso positibotzat jo behar dugu bulego hauek izan zuten jarduera. Izan ere, 100 lagun inguru pasa ziren hiru bulegoetatik argibideak eta azalpenak eskatzera, eta era guztietako galderak egitera. Kontuan izanik zerbitzu zabaltzat hartu genuela, bertara hurbildutakoak oso pozik gelditu ziren jasotako zerbitzuarekin.

Bigarrenik, Arizmendi proiektua gurasoengadik ahalik eta gertuen egoteko sortu zen. Asmoa ez da informazio zerbitzua soilik eskaintzea, euren eskaerei modurik egokienean erantzutea baizik. Gurasoen eta ikastolen arteko komunikazioa estutzea beharrezkoa da horretarako.

Hirugarrenik, Arizmendi proiektuak bailaran izan duen laguntza azpimarratu behar da. Arrasateri begira haurren %80 gurekin dago eta Leintz bailaran sei urteko neskamutikoen %74 ari da Arizmendi kooperatiba osatzen duten ikastoletan. Datuei zehatzei erreparatuz, Arizmendi kooperatibak 1999-2000ko ikasturtean 3.322 ikasle ditu, honela banaturik: Haur Hezkuntzan 503 ikasle; Lehen Hezkuntzan 1.056; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan 991; Batxilergoan 470; Heziketa zikloetan 230 eta Lanbide Hastapenean 72 ikasle.

Azkenik, eta etorkizunari begira, Arizmendi proiektua erakargarriagoa izatea nahi dugu. Eta horretan ari gara lanean. Izan ere, guztion laguntza behar dugu horretarako.

Beraz, Arizmendi kooperatiba sortua dagoen arren, eta bere gestio organoak osatuak dituen arren, proiektuak lanean segitzen du. Hezkuntza aratuaz gain, hezkuntza ez arautuan ere lan egin nahi dugu eta horretarako sortu da "ekintza berrietarako taldea".

Kooperatiba honen lehen urratsa Plan Estrategikoa burutzea da eta dagoeneko horretan ere hasiak gara. Izan ere, etorkizun berri eta ilusionatzailea diseinatzen ari gara, proiektu honetan murgilduta gauden guztion artean.

Gure zerbitzua Mankomunitatearekin batera ari gara eskaintzen.

> **"Gurasoek euren haurrak hezitzeko dituzten aukeren berri izan behar dute"**

*Hezibideko Komunikazio arduraduna


MARGOAK Pando
ERROTULOAK
Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabilioia)
Tel. / Faxa: 943 79 79 70

Lore
• Lurrindegia • Kabina •
• Fotodepilazioa •
Olarte kalea, 10 • Tel.: 943 79 52 50

Altzariak
Diseinua
Apainketa
ARENAZA
Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

## astea bi hitzetan

**■ Eskola Politeknikoko batzar orokorra**

Pasa den ostegunean izan zen urteko Batzar Orokorra Eskolako Areto Nagusi berrian. Pasa berri den urtearen balantzea egin zuten arduradunek eta positibotzat jo zuten. Ekonomia aldetik 36 milioi pezetako onurak izan ditu eskolak, han adierazitakoaren arabera.

Ikasketei dagokienez, 5 titulazio berri jarri dira abian pasa den ikasturtean. Horrez gain, hezkuntza iraunkorrean ere 6.500 ordutik ia 8.000ra pasa zen eta proiektuen arloan, 150 proiektu garatu dira.

**■ Herri Onurako Koop.**

Kooperatiba izatetik Herri Onurako Kooperatiba izatera pasako da San Viator eskola. Horrela erabaki zuten bazkideek pasa den ostegunean egin zuten ohiko batzar nagusian. Itsaso Nuin zuzendariak adierazitakoaren arabera, onura fiskalak izango ditu ikastolak, besteak beste.

San Viatorren erabaki hau Hezibide proiektuaren eremuan dago. Izan ere, Hezibideko beste kide batek, San Frantzisko Xabier ikastolak, joan den abenduan onartu zuen estatutu moldaketa berbera. Ikastola biak Arrasate Ikastola osatzeko elkarlanean ari dira.

**■ Zaborra aztergai**

Zaborrak eragiten dituen ingurugiro arazoak aztertzeko kanpainari ekin zaio bosgarren urtez. Ingurugiro Eskolaren eta Deba Garaiko Mankomunitatearen artean antolatuta, gai hau lantzeko hainbat ekintza izango dira orain hasi eta maiatzera arte, birziklatzearen garrantzia erakusten duen erakusketa tartean. LHko 6. mailako eta DBHko lehen zikloko ikasleei dago zuzenduta bereziki, baina, publiko orokorrak ere izango du ikusteko aukera.

Gainontzeko ekintzak aurreko urteetako berberak izango dira.



**■ Solidarioak ekinean**

Euskal presoen aldeko solidarioek hainbat ekintza egin dute pasa den astean zehar. Ostegunean, Eskola Politeknikoak egin zuen batzar orokorrera sartu ziren. "Euskal Presoak Euskal Herrira" zioen pankartarekin taula gainera igo eta hantxe egon ziren Eskolako arduradunak urteko balantzea egin bitartean. Ostiralean, berriz, hiru errepide moztu zituzten: Kanpazarren, Berriz inguruan eta Atxondo auzotik gertu.

"Etorkizunari begira ikusten dugu komunikazioaren mundua egundoko abiadan doala aurrera, eta enpresa handiak, oraindik hurbileko informazioaren arloan sartu ez direnak, arlo honetan apurka-apurka sar daitezkeela ikusten dugu. Neurri batean geuk daukagun arlo bat komunikazioaren enpresa handiek okupa dezaketela ikusten dugu. Hori batetik. Bestetik, guk geuk ematen dugun zerbitzua bera ere bere neurrian baloratu behar da. Astean behingo aldizkaria aterata, horren eragina bere neurrian baloratu behar da. Gure komunikabideak herritarren komunikazio behar ahalik eta gehienei erantzuteko gai izatea gura genuke. Eta gure komunikazio eskaintza oraindik urruti dago helburu horretatik. Beraz, bitarteko indartsuagoz hornitu nahi genuke gure eskaintza, eta horretarako elkartu".

**ESTEPAN PLAZAOLA**
*Euskaldunon Egunkaria*
2000.1.20


Parques y Jardines



**Parke eta lorategien sorkuntza.**
**Lorazaintzako mantenimendua orohar.**
**Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.**

Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

## Fagor, bi halako

Fagor Elektratresnak enpresak ia 900 lanpostu berri sortuko ditu 2004. urterako, datorren urterako 300 bat eta 2004an 600 gehiago. Asmo hori ere Fagor Elektratresnaken 2003. urtera arteko Nazioarteko egitasmoen zati da. Izan ere, Espainian saltzen duten kopurua berdindu nahi dute esportazioetan. Baina horretarako Garagartzako lantegia handitu beharra daukate. 15.000-16.000 metro karratu inguru handitzea aurreikusi dute arduradunek. Jabier Gantxegi Fagor Elektratresnak kooperatibako kontseilu errektoreko lehendakariak azaldu bezala, "egosketan 2001. urtean %16 eta 2004.ean %60an igotzea espero da. Garbigailuetan datorren urtean %36 eta 2004.erako %82 eta ontzi garbigailuen produkzioa 2001. urtean %25 igoko balitz, 2004.ean, %54 igoko litzateke".

Joan den asteko gobernu batzordeak onartu egin zuen Fagorrek behar duen lurzoluaren arau subsidiarioak aldatzea. Beraz, eraikitzeko baimena du. Lanak aurten hasi nahi dituzte, datorren urtean pabilioi berrian hasi ahal izateko.

# Jaurlaritza Zerrajera bisitatzen



Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailburua, Patxi Ormazabal, Mondragoen izan zen astelehenean Zerrajerako lanak bisitatzen. Ormazabal sailburuarekin batera, Xabier Zubizarreta alkatea, Jose Mari Urizar "Ametzu" zinegotzia eta Eusko Jaurlaritzako teknikariak izan ziren. Bisita horretan zehar, hainbat gairi buruz hitz egin zen, babes ofizialeko etxebizitzei buruz besteak beste. Oraingo proiektuak babes ofizialeko 92 etxebizitza egitea dago aurreikusita, baina, alkatearen esanetan, ahalik eta eskaintza zabalena egitea litzateke asmoa.

Udalak egin nahi duen industri museoa ere hizpide izan zen bisitaldian. Gogoratu, UCEMen egindako makina zaharrak gordetzen ari dela udala. Era berean, Fundizioa izan zeneko egitura desmontatu egin nahi da, etorkizunean antzeko eraikin bat montatu eta industri museoa egiteko. Xabier Zubizarretak aditzera eman duenaren arabera, Mondragon Unibertsitateak garatu nahi duen proiektuaren barruan edukiko luke tokia.

## Baserriko plastikoak biltzeko

Mendi Nekazaritza Elkartea Debagoieneko baserrietan lanetarako erabiltzen den plastikoa batzen hasi da. Ondoren, Legazpiko Remaplas enpresara eramango da birziklatzeko. Herri bakoitzean hainbat puntu ezarri dira plastikoak jasotzeko. Guztira 25 kokaleku zehaztu dira.

**BILKETA**

Azarotik maiatzera bitartean hilean behin batuko dira plastikoak, hilaren azken asteazkenean, hain zuzen ere. Plastikoak,bezperan utzi beharko dira arratsaldeko 17:00etatik aurrera, soka batez ondo lotuta haizeak eraman ez ditzan.

## Gudari eguna dela eta

Ezekiel Fernandez "Marmi", Ertzaintzak atxilotu zuen Gudari Eguneko kale agerraldian. Egun berean askatu zuten arren, epaiketa izan zuen. Fiskalak 5.000 pta.ko isuna ezarri dio.


UROndo
Elektrizitatea

* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

# Mendebaldeko Saihesbidea abendu aurretik adjudikatzea eskatu da

Arrasateko Udalak berriro eskatu dio Gipuzkoako Foru Aldundiari Arrasateko Mendebaldeko Saihesbidea egitea.

LKSk egindako aurreproiektua oinarritzat hartuta, saihesbidearen proiektua egitea eskatu zaio Aldun Nagusiari. Eskaeraren arabera, 2000. urtea bukatu baino lehen adjudikatuta egon beharko lukete saihesbidea egiteko lanek.

Saihesbidearen finantziazioa ere aldundiaren esku utzi da. Aurreproiektuaren arabera, 2.194.002.132 beharko dira Arrasateko Mendebaldeko saihesbidea egiteko.




### TRAFIKO AZTERKETA

Hori guztia eskatzeko orduan, LKS enpresak inguru horretako trafikoaren azterketa egin du. Gerora begira trafikoak jasango duen igoera ere aurreikusi du. Izan ere, Garagartzako Fagor Elektratesnak enpresak ekoizpena bikoizteko asmoa du 2004. urterako. Horrek, eragin zuzena izango du trafikoan. Gauza bera gertatzen da Markulete industrialdean kokatzen ari diren enpresekin, horiek ere langile ugari ekarriko baitute ingurura.

### MENDEBALDEKO SAIHESBIDEA

Aspaldi eskatu zion Arrasateko Udalak Aldundiari Mendebaldeko Saihesbidea egitea. 1994. urtetik dator egitasmoa. Takolo eta Garagartza lotzea du helburu, mendia zeharkatuko lukeen Olandixoko tunelarekin. Inguru horretan dauden trafiko arazoak konpondu egingo lituzke saihesbideak udalaren ustez. Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat, hala ere, ez da horren beharrezkoa eta orain arte ez dio onespenik eman.

**Aurten proiektua adjudikatzea espero da**

Hori dela eta, iaz, udalaren eta MCCren artean hitzarmena sinatu zen saihesbidea bultzatzeko asmoz. Azkenean LKS enpresak egin duen aurreproiektua egin eta Foru Aldundira bidaltzea erabaki zen orduan.

### AURREPROIEKTUA

Takoloko biribiletik hasi eta Markulete ingururaino joango litzateke Saihesbidea eta.

1.237'394 metro izango du. Hasteko, Takoloko biribilaren diametroa handitu beharko da. Segidan, Olandixo zeharkatuko duen tunela eraiki beharra dago; tunelak 722 metro izango ditu tunelak.

Aramaio ibaiak ere izango du aldaketarik. Orain dagoen moduan, saihesbidea erditik moztuko luke. Hori konpontzeko, errekaren ibilbidea apurtxo bat aldatu egin beharko da.

Markuletetik gertu, beste biribil bat egitea aurreikusi da.

## Haratuzteetako lehiaketa

Haratuzteak gainean ditugu eta dagoeneko abian da urteroko hormirudi lehiaketa. Udalak lehiaketaren arauak eman berri ditu. Lehiaketan Arrasaten bizi edo erroldatutako edozein pertsonak har dezake parte eta teknika librea izango da. Hori bai, "2000 Haratuzteak Arrasate" esaldia derrigorrez azaldu beharko da.

Kartelok otsailaren 21eko eguerdiko ordubata baino lehen bidali beharko dira udaletxera, Kultura Sailera.

## Monterron Erguin

Monterronetik Erguineraino-ko pasealekua egiteko proiektua LKS enpresak egingo du; halaxe erabaki du aste honetako Gobernu Batzordeak. Hiru hilabeteko epea eta 4.200.000 pezetako aurrekontua izango du lan horrek. Proiektua onartzen denean, udalak 6 hilabete izango ditu obrak adjudikatzeko eta 9 hilabete geroago lanak hasiko dira, abenduan, beraz.

Pasealekuak 550 metro izango ditu eta Monterron parkean hasi eta Erguineraino iritsiko da.

Lan hauekin bukatuta geratuko da Musakola eta Erguin auzoak lotuko dituen oinezkoen pasealekua. Duela 16 urte hasi zen proiektua lantzen.


AGR DEKORAZIOA

Zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak • PVCko leihoak • Aluminiozko leihoak • Eskailerak • Armairu enpotratuak...

GREMIOEN KOORDINAZIOA

Erakusketa eta biltegia:
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20

ZENTRU PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Trataera txar fisiko edo psikikoak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel: 943 79 48 77 • ARRASATE

## UMEEN DANBORRADA





Arrasaten ere ospatu zen San Sebastian eguna. Danborrada koloretsu eta biziekin alaitu zuten eguna Umezaintzak eta Erguin Herri Eskolak.


Inoiz ez dugu

jakingo zenbat

lagundu digun

**aurrerapen**

honek.






## URIBARRIKO DEKANOAK

Uribarriko erretiratu etxeko bazkideak dira guztiak, eta 80 urtetik gorakoak izateagatik omenaldia egin zien zuzendaritzak. Urte askoan!

## KONTZESIONARIO BERRIA



Jende asko joan zen pasa den ostiralean Mugarrieta-ko Honda kontzesionario berria ikustera. Lehendik zegoen erakusketari tailerra gehitu diote. Auto ederrak ikusi eta mokadutxoa egin ahal izan zuten ikusleek.


PEUGEOT
Salmenta eta zerbitzua
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Otarteko hotz eta beroak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tel: 943 79 67 76

# Sagardoa: Gure bazterrak bustitzen

**Urte hasierarekin batera, txotx garaia iristen zaigu Euskal Herrira. Urteko sagardoa nolakoa den dastatzeko unea, hain zuzen ere. Honekin batera, makina bat sagardotegik ateak irekitzen ditu, eta beste askori, eguneroko jarduera apur bat albo batera utzi eta sagardoa bihurtzen zaie bizibide.**

**Apirilaren amaiera eta maiatza hasiera bitartean, jende mordoa joango da sagardotegietara. Hauxe da azken urteotan moda-modan jarri dena: lagun taldea elkartu, automobila edo autobusa hartu eta asteburuko jaia aprobetxatuz, Gipuzkoatik Astigarraga ingurura eta Bizkaitik Durango aldera jotzea, sagardotegien bihotzera.**



Aramaioko Iturrietan sagarrondo ugari landatu dira, sagardoa egiteko etxeko sagarrak izateko.

Sagardoegietara joateko ohitura aldatuz doa. Modan jartzeak sagardotegiak ugaltzea ekarri du. Gero eta toki gehiagotan ari dira sagardotegiak zabaltzen.

Gure inguruan ere igartzen da hori. Horren adibide da urte eta erdi dela Aramaion iriki den Iturrieta sagardotegia. Juanjo eta Benito Peciña anaia gasteiztarrek, baserrirako bidea hartu eta egoera ondo aztertu ondoren, sagardoa egin eta sagardotegi-jantokia zabaltzea aukeratu zuten ogibide.

Pozik daude, gainera, orain arte lortutako emaitzekin eta baserrian daramaten bizimoduarekin.

## ITURRIETA SAGARDOTEGIA

Urtarrila hasieratik apirilera arte sagardotegi moduan funtzionatzeaz gain, urtean zehar jantoki (merendero) izaera gordetzen du Iturrietak, sagardotegiak berak bestela ez baitu nahikoa ematen.

Baina aipatu beharra dago, urtean zehar ere sagardoa dela Iturrietako bihotza eta gainera, han eskaintzen diren produktu ugari Peciña anaien ortukoak dira, eurek hazten eta zaintzen dituztenak.

Gauza bera Aramaioko sagardoa egiteko sagarrekin. "Oraindik ez dugu geuk sagar guztia produzitzerik lortu; bailarako baserritarrei erosten dizkiegun sagarrekin ere ez da nahikoa. 13.000 litro sagardo egin dugu aurten. Hemen ez dago hori egiteko lain sagar. Gerora begira, baina, gure helburua Iturrietako sagardoa egiteko behar den sagarra bailaran lortzea da. Guk, adibidez, sagarrondo berriak sartu ditu-



Iturrietako sagardoa botilan.

gu eta hiru-lau urte barru hasiko gara fruituak jasotzen. Inguruko auzokideak ere horretara animatu nahi ditugu. Iturroste, Gardoki eta Madina baserriak, esaterako, ibiltzen dira horretan".

Euskal Herriak beti izan du sagarra lantzeko lur ezinobea; pinua iritsi arte, mendi ugari sagarrondoz beteta zegoen. Sagardotegi handiekin lehiatzea baino, kalitatezko sagardoa lortzea da Iturrietakoen helburua.



Txotx egunean Mikel Urdangarin abeslaria izan zen gonbidatu berezia. Berarekin, Juanjo eta Benito Peciña anaiak.

## LANA UGARI

Sagardotegiak lan handia ematen du.

Peciña anaiak udazken aldera hasten dira lanean. Sagarrak batzeko garaia da. Bilketa egin ondoren, sagarrak birringailu batetik pasatzen dira zukua ateratzeko. Beratzen jartzen dira segidan, 12 bat orduz jeneralean (tenperaturaren arabera). Ondoren, prentsatu eta azkenik biltegietara joaten da.

Biltegietan dagoen mosto apurtxo bat enologoari bidaltzen zaio nolakoa den jakiteko eta horren arabera, egokitu egiten da edaria.

Bukatzeko, fermentazioa egiten da biltegietan.

Hiruzpalau hilabete pasatu da sagar bilketa hasi zenetik. Hala ere, tenperaturak agintzen du emaitza horretan. Tenperaturaren arabera, laburrago edo luzaroagoa izaten da sagardoa egitea. Tenperatura egokia 10 gradukoa da.

Prozesu guztia bukatu ondoren, kupeletan sartzen da sagardoa.

Oraingo kupelak, baina, ez dira lehengoak modukoak. Sagardotegi berri gehienetan eta zaharretako askotan, metalezko ontzi handiak erabiltzen dira sagardoa gordetzeko. "Egindako ikerketen arabera, sagardoa askoz ere hobeto gordetzen da metalezko ontzi horietan orain arteko egurrezko kupeletan baino. Are gehiago, egurrezkoetan ez bezala, metalezkoetan sagardoa luzaroan gorde daiteke egoera onean. Modu honetan, beroa heltzean ez dago botiletan sartu beharrik".

Sagardoa tutu baten bitartez egurrezko tapakiraino iristen da eta handik ateratzen da guk edaten duguna.

## EUSKAL IZAERA

Sagardotegietara joateko ohitura, ez da sagardoa edatera joatea soilik. Hori baino zabalagoa da ohitura honen esanahia. Euskal kulturarekin lotura sakona du. Jeneralean sagardotegi batean trikitilariak egoten dira, bertsolariak eta baita txalapartariak ere. Batzuetan nagusiak jarriak izaten dira, bestetan lagun talderen batekin joandakoak.

Giro honetan sartuta, jendea elkarrekin aritzen da euskaraz, kantuan edo dantzan.

Iturrietan ere halaxe da. Trikitilariak maiz izaten dira Aramaioko txoko horretako giroa alaitzen. Auzokoak batzuetan eta Benito Peciña bera bestetan. "Txotx" garaian eta urtean zehar.



Makina bat lagun gerturatu zen pasa den ostegunean Iturrietara.



Astigarragan 18 sagardotegi daude.

## SAGARDOTEGIEN BIHOTZA

Sagardotegiez hitz egitean, duda barik Astigarraga inguruak etortzen zaizkigun burura. Egon ere hantxe daude Euskal Herriko sagardotegi gehienak. Astigarragan bakarrik, 3.900 biztanle dituen Gipuzkoako herritxoan, 18 sagardotegi daude. Tartean, gehienok ezagutzen dugun Zapiain markako sagardogileak. Miguel Zapiain da inguru horretako sagardozaleen bozeramailea eta berak kontatu digu zergatik dagoen inguru hartan ugalketa.

“Sagardoak historian zehar sasoi onak eta txarrak izan ditu. Gerra ondoren, esaterako, desagertzeko zorian egon zen. Baina, orduan ere, Astigarragan 10-12 sagardogile zegoen. Beraz, sagardotegien ugalketa gertatu denean (15-20 urte dela) normala da ugalketa ere sagardoa betidanik egon den tokian gertatzea”.

## JATORRIA

Sagardotegietara joateko ohiturak 20 urte baino gehiago ditu. Sagardoaren negozioa hasi zenean, erostunak urte guztirako sagardoa erosi eta etxean gordetzen zuen. Erosi aurretik sagardoa probatu beharra zegoen, baina. Horretara joaten ziren sagardotegietara. Orduan, erostuna, beste hiruzpalau lagun eta sagardogilea elkartzen ziren dastaketa egitera. Sagardoa tripa hutsarekin ez edatearren, jakiak eramaten zituzten etxetik; eta eramaten ez baziren, hangoak jaten ziren. Orduan, noski, nagusi ziren intxaurra, gazta eta bakailaoa.

Pauso guztiak emanda, Aste Santurako sagardogileak jakiten zuen saldutako sagardo kopurua. Soberan geratzen zitzaiona, zati bat botiletan sartzen zuen eta bestea basokadaka saltzen zuen. Honi “txotx” egitea esaten zitzaion.

Denborarekin, baina, sagardo erostunentzat gero eta zailagoa egiten zen urte guztirako sagardoa non gorde asmatzea. Hori dela eta, sagardogileak urte guztian zehar hasi ziren sagardoa saltzen. Era berean, urteko sagardoa dastatzearen zentzua ere aldatu egin zen eta publikoki egiten hasi zen.

## TOLARE-SAGARDOTEGIAK

Pasa den urtetik hasita, sagardotegi batzuek Tolare izendapena jaso dute.

Sagardotegien modarekin, asko iriki dira azken urteotan. Horietako askok ez dute sagardoa bertan egiten, erositakoa erabiltzen dute. Sagardotegiak baino, erretegiak dira. Beraz, sagardoa bertan egiten duten edo ez jakinarazteko, “Tolare” izendapena erabiltzen hasi dira. Tolare Sagardotegietan etxean egindako sagardoa edaten da. Besteetan, erositakoa. Oraingoz Gipuzkoan 60 sagardotegi inguruk dute Tolare izendapena. ■

Ubane Madera

**Soberan zegoen sagardoa basokadaka saltzen zen. Honi “txotxian” egitea deitzen zitzaion.**

### ASTIGARRAGAKO SAGARDOTEGIAK

| | |
|---|---|
| **Astigarragan** | 18 sagardotegi |
| **Aurten** | 4.800.000 litro |
| | 1.650.000 botila |
| | Urte guztian zehar sartzen dute sagardoa botiletan |
| **Sagarrak** | Euskal Herrikoak, Galiziakoak eta Frantziako iparraldekoak |
| **Gipuzkoa** | 70 sagardotegi |
| **Tolare-Sagardotegiak** | 60 inguru |

*Sagardotegian lasai jan eta edan... gurekin itzuliko zara patxadan!*

APAOLAZA
AUTOBUSAK

16, 30 eta 55 lagunentzat autobusak

Tel.: 943 72 15 57
943 72 48 10



# Tolare sagar



## Zalbide

**Tel.: 943 65 21 76**
Zalbide baserria
**Garaia:** Urtarrilaren 14tik urriaren 30era
**Janaria:** Sagardotegiak jartzen du
**Lekua:** 100 lagunentzat eserita nahiz zutik

**ABALTZISKETA**



## R. Zabala

**Tel.: 943 69 07 74**
Garagartza baserria
**Garaia:** Urtarriletik maiatzera. Larunbat eta igande eguerdietan enkarguz irekita. Gauetan zabalik
**Janaria:** Sagardotegiak jartzen du

**ADUNA**



## Larreta

**Tel.: 943 65 42 93 / 943 65 29 46**
Laturu etxea
**Garaia:** Urtarrilaren 2tik maiatzera arte
**Janaria:** Sagardotegiak jartzen du
**Lekua:** 125 lagunentzat

**AMEZKETA**



## Mendiola

**Tel.: 943 39 03 90**
Ulia Mendia. Arzak jatetxe ondotik sartu eta km 1era
**Garaia:** Urtarrilaren 19tik apirila bukaera arte
**Janaria:** Sagardotegiak jartzen du
**Lekua:** 100 lagunentzat

**DONOSTIA**



## Eizmendi

*Maixa Eizmendi*
**Tel.: 943 55 64 05**
Osinaga auzoa
**Garaia:** Urtarriletik apirila bukaera arte
**Janaria:** Sagardotegikoa edo norberak ekarria
**Lekua:** 150 lagunentzat

**HERNANI**



## Larre-Gain

*Ixabel Santa Kruz*
**Tel.: 943 55 58 46**
Larre-Gain Etxea, Ereñotzu
**Garaia:** Urtarrilak 14tik maiatzak 7ra
**Janaria:** Sagardotegikoa edo norberak ekarria
**Lekua:** 120 lagunentzat

**HERNANI**



## Aulia

**Tel.: 943 80 60 66**
Aulia Enea baserria
**Garaia:** Abenduaren 13tik maiatza bukaera arte
**Janaria:** Sagardotegiak jartzen du
**Lekua:** 140 lagunentzat

**LEGORRETA**



## Argarate

*Sagardo biologikoa*
**Tel.: 943 33 07 26**
Oztaran bailara, 29
**Garaia:** Urtarriletik maiatza arte
**Janaria:** Sagardotegikoa edo norberak ekarria
**Lekua:** 70 lagunentzat

**URNIETA**



## Elutxeta

*Juan Joxe Urruzola*
**Tel.: 943 55 69 81**
Elutxeta baserria.
**Garaia:** Urte osoan zabalik, astelehenetan ezik
**Berezitasunak:** Ohikoa eta bufaloa
**Lekua:** 200 lagunentzat

**URNIETA**

# lotegien gida



## Iturrieta

**Tel.: 945 44 53 85**
Arriaga auzoa
**Garaia:** urte guztian zabalik
**Janaria:** Sagardotegiak jartzen du
**Lekua:** 100 bat lagun

**ARAMAIO**



## Sarasola

**Tel.: 943 69 02 83 / 943 65 26 22**
Beballea auzoa
**Garaia:** Urtarriletik maiatza arte
Larunbat eta igande eguerdian zabalik
**Lekua:** 200 lagunentzat

**ASTEASU**



## Añota

*Luis Mari Beloki*
**Tel.: 943 81 20 92**
Elosiaga auzoa, Urraki errepidea
**Garaia:** Urtarrilaren 14tik irailaren bukaera arte
**Janaria:** Sagardotegiak jartzen du

**AZPEITIA**



## Sagarzazu

*Serafin Sagarzazu*
**Tel.: 943 64 16 41**
**Garaia:** Urtarriletik abuztua arte
**Janaria:** Sagardotegiak jartzen du
**Lekua:** 100 lagunentzat
**Debagoieneko banatzailea:** J. Antonio Hernandez
Tel.: 943 79 70 33

**HONDARRIBIA**



## Begiristain

*Iñaki Begiristain*
**Tel.: 943 65 28 37**
Iturriotz baserria
**Garaia:** Urtarriletik maiatza hasiera arte
**Janaria:** Sagardotegiak jartzen du
**Lekua:** 120 lagunentzat

**IKAZTEGIETA**



## Otegi

**Tel.: 943 36 50 29**
Solla Enea baserria
**Garaia:** Urtarriletik apirila bukaera arte
**Janaria:** Sagardotegiak jartzen du
**Lekua:** 150-160 lagunentzat

**LASARTE**



## Iguarte

**Tel.: 943 37 01 13**
Iguarte kalea, 11. Txiki Erdi Pol.
**Garaia:** Urte osoan zehar zabalik
**Janaria:** Arraina parrilan,
bakailoa, Galiziako txuleta...

**USURBIL**



## Urdaira

*Patxi Azkonobieta*
**Tel.: 943 37 26 91**
Urdaira baserria, Aginaga auzoa
Urtarriletik maiatzera arte zabalik
Larunbatetan eta jai eguerdietan zabalik

**USURBIL**




















# iKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

**SUKALDE ERAKUSKETA**
Udala Plaza, z/g • ARRASATE • Tel.: 943 79 00 43

**BAINU ERAKUSKETA**
Zarugalde kalea, 52 • ARRASATE • Tel.: 943 79 99 42

FAGOR

# Areto futbola

Aste honetan areto futboleko araudia azaltzeko asmoa daukagu. Izan ere, Arrasate Kirol Proiektuko neska-mutikoek egiten duten kiroletako bat da. Baina ez dute jokoan bakarrik egiten; jolasaren oinarrizko teknika, hitz teknikoak eta oinarrizko arauak ere ikasten dituzte. AKPko begiraleak arduratzen dira hori irakasteaz eta beste gauza batzuen artean, baloiaren domeinua bi hankekin lantzen erakusten diete, baloia elkarri botatzen, bakarkako defentsa, taldeko erasoa eta defentsa, jauziak, birak eta jaurtiketak egiten ere bai; hori guztia beharrezkoa baita areto futbolean ondo aritzeko.

### ARAUAK

- Taldea osatzeko lau jokalari eta atezaina behar dira.
- Jolas eremuak minieskubaloikoaren tamaina izango du.
- Jokalariek ezin izango dute baloia esku edo besoarekin ukitu.
- Atezainak ezin du hankarekin baloia atera.
- Atezainak baloia areaz kanpo ukitzen badu, falta izango da.
- Atearen aurrean faltaren bat egiten bada, penaltia edo jaurtiketa librea izango da.



- Alboko sake guztiak eta kornerrak eskuarekin egingo dira.
- Falta jaurtiketa guztiak ezzuzenak izango dira.

Joko honekin ere, beste guztiekin bezala, AKPko begiraleek taldekako jolasa sustertzea dute helburu. Horrez gain, aurkako eta kidearekiko errespetua erakustea bultzatzen saiatzen dira eta baita epaile eta bere erabakiekiko ere.

### PILOTA JAIALDIA

Bihar, bailarako pilota topaketa egingo da Eskoriatzan. Benjamin mailako haurrak elkartuko dira kiroldegian pilota ardatz duten jolasak egiteko. AKPko aurrekiroleko haur guztiek dute irekita parte hartzeko aukera. Eskoriatzara joateko autobusa 15:30ean aterako da Garibaitik eta 17:30ak aldera itzuliko dira.

## Asteburuko hitzorduak — Urtarrilak 29, larunbata

### AURREKIROLA

*Iturripe*

| | |
|---|---|
| 9:30 | SFX U |
| | SFX D |
| | SFX E |
| | Aramaio |
| 10:30 | Erguin A |
| | San Andres |
| | SFX A |
| | San Viator B |
| 11:30 | Musakola |
| | San Viator A |
| | Merced |
| | Erguin B |
| 12:30 | SFX C |
| | SFX B |

### MULTIKIROLA

**NESKAK**

*Musakola*

| | |
|---|---|
| 11:45 | SFX A |
| | San Viator A |
| 12:30 | San Viator B |
| | Merced |

*Gazteluondo*

| | |
|---|---|
| 11:45 | SFX U |
| | Erguin |

**MUTILAK**

*Gazteluondo*

| | |
|---|---|
| 9:30 | San Viator C |
| | SFX A |
| 10:15 | SFX C |
| | SFX B |
| 11:00 | Merced |
| | Aramaio |

*Musakola*

| | |
|---|---|
| 10:15 | SFX U |
| | San Viator B |
| 11:00 | San Viator A |
| | Erguin |

### INFANTILAK

**SASKIBALOIA**

**MUTILAK** — Autobusa

*Zubikoa*

| | |
|---|---|
| 10:00 | Aozaraza 2 |
| | Arrasate B |
| 10:00 | Txantxi DBH 2BM |
| | San Viator |
| 11:00 | Aozaraza 2 |
| | San Viator |

*M. Lagundia*

| | |
|---|---|
| 11:00 | M. Lagundia B |
| | Arrasate A |

**NESKAK** — Autobusa

*San Viator*

| | |
|---|---|
| 10:30 | San Viator |
| | Aozaratza 2 |
| 11:30 | San Viator |
| | M. Lagundia |

**FUTBOLA**

**NESKAK** — Autobusa

*Atxabalpe*

| | | |
|---|---|---|
| 09:00 | La Merced | |
| | Almen | |
| 09:00 | SFX –B- | |
| | Aranzadi –B- | |

*Almen*

| | | |
|---|---|---|
| 10:30 | Torrebaso | |
| | San Viator | |
| | SFX –A- | Atsedena |

**MUTILAK** — Autobusa

*Ibarran*

| | | |
|---|---|---|
| 11:00 | Txantxiku 1.A | |
| | La Merced | |
| | SFX | Atsedena |



Multikiroleko La Merced nesken taldea.



Multikiroleko La Merced mutilen taldea.



**Uiiiiiiii!!!!!!**

Itxura bai ezta atezainak! Baina asmatu ez, ordea. Hau da hau, gol baten unea izoztea! Gure argazkilari trebeak lortu zuen hori. Serengeti taldeak 4 eta 2 galdu zuen. Hurrengoan beharko du.

ARRASATE KIROLAK
Kontzezino Kalea, 8 - Tel. 943 794 612 - ARRASATE-MONDRAGON

**SOKOAKOAK KALERA**

Jadanik lau talde dira aurten Zaldibarko txapelketatik kanpo gelditu direnak. Azkenengo taldea Sokoakoak izan zen. Joan den astean kontatu genizuen bezala, partida bat ez epaitzea erabaki zuen. Joan den asteburuan, ordea, partida ez jokatzea erabaki zuen. Gauzak horrela, antolakuntzakoek taldea txapelketatik kanpo lagatzea erabaki dute. Xhasss Ugarte taldearen aurka jokatu behar zuen Sokoakoak taldeak, baina jokatu barik, aldeko puntuak lortu ditu Xhasss taldeak.

## Hurrengo partidak / 10. jardunaldia

**larunbata, 29**

**Zaldibar**

| Ordua | Partida | Epailea |
|---|---|---|
| 10:00 | Goma 2 - Ume Zikinak | (Aurrera Bolie) |
| 11:00 | Alai Gozokiak - Aurrera Bolie | (Goma 2) |
| 12:00 | EPEH - Makanudos | (Alai Gozokiak) |
| 13:00 | Kan. Harrobia - Saukelu Scream | (EPEH) |
| 14:00 | IKP - Txeyenex | (Saukelu) |
| 15:00 | AKTA - Koka Juniors | (Txeyenex) |
| 16:00 | Borrock & Roll - Kamasutra | (AKTA) |
| 17:00 | Giraldilla Con - Kobate DKB | (Bo. & Roll) |
| 18:00 | Branka Tab. - Potroak | (DKB) |
| 19:00 | Etxerat Tab. - Makai | (Potroak) |

**Iturripe A**

| Ordua | Partida | Epailea |
|---|---|---|
| 15:50 | AT Lokala - Betrayer | (Orlando) |
| 17:00 | Orl. Piratas - Xhasss Ugarte | (Betrayer) |

**Iturripe B**

| Ordua | Partida | Epailea |
|---|---|---|
| 15:50 | Serengeti - Dribling | (Etxe Mobel) |
| 17:00 | Etxe Mobel - AC Surkos | (Serengeti) |

**igandea, 30**

**Zaldibar**

| Ordua | Partida | Epailea |
|---|---|---|
| 09:50 | Garaje Socar - SAS T | (Atxanta) |
| 11:00 | Atxanta el retorno - Fraguel Gol | (Garaje Oscar) |
| 12:00 | Kom. Alpargat - You Know | (Fraguel Gol) |
| 13:00 | Timoftol - Leya | (Fraguel Gol) |

**Atsedena:** Aldibi, Bar Nuevo, Irati STS, DA Iriztu

## Emaitzak

**A taldea**

Sokoakoak 0 - Xhasss Ugarte1
Saukelu Scream 3 - Goma 2 1
Irati STS 8 - AT Lokala 1
Betrayer 0 - Orlando Piratas 2
Kom. Alpargat 8 - Kobate DKB 2
You Know 5 - Etxe Mobel 4
Bar Nuevo 3 - Giraldilla Con. 9
Diego Antonio 7 - AC Surkos 5
Fraguel Gol 3 - Kan. Harrobia 8

**B taldea**

Alai Gozokiak 5 - Garaje Oscar 5
Koka Juniors 1 - Timoftol 8
Leya 4 - IKP 5
Etxerat Taberna 5 - EPEH 5
Sas T 1 - Potroak 4
Aurrera Bolie 0 - Txeyenex 6
Aldibi 5 - Akta 3
Branka Taberna 9 - Makai 0
Dribling 2 - Kamasutra 3
Makanudos 4 - Serengeti 2

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78

beatriz
oinetakoak eta poltsak
Erdiko kale, 11
Tel.: 943 79 14 33
ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.
Guk egindakoak:
• Sukalde altzariak
• Armairu enpotratuak
• Trastelekurako armairuak
Fabrikan erakusketa
Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

BASABE JATETXEA
Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Tel.: 943 79 91 84
ARETXABALETA

# Eskola arteko judo txapelketa

Igandean jokatuko dute Musakolako kiroldegian eskola arteko neska-mutikoek judo txapelketa.

Goizean goiz, 10:00etan, entrenamendu antzeko bat egingo dute 10 urtetik beherakoek. Txapelketa 11:00etan hasiko da. 1986, 87, 88 eta 89an jaiotakoek hartuko dute parte.

Arrasateko judo taldeaz gain, Dabarroko beste talde guztiak eta Eibar, Legazpi eta Zumarragakoak ere arituko dira.

Arrasatetik zortzi lagunek hartu du parte txapelketan: Josu Arana, Mikel Arana, Ander Garcia, Asier Casas, Iñaki Gascon, Lidia Casas, Joseba Garcia eta Josu Lopezek. Guztiak ere hamalau urtetik beherakoak dira.



**Zortzi arrasatear arituko dira txapelketan.**



**Behin baino gehiagotan txapeldunak izan dira arrasatearrak.**

### GIPUZKOAKO TXAPELDUNAK

Joan den asteburuan, bestalde, lau arrasatearrek Gipuzkoako txapelketa jokatu zuten Donostiako Egia auzoan. David Arnaiz, Leire Zabala, Maddalen Aranegi eta Itziar Zabala izan ziren herriko ordezkariak. Eta ez zuten batere gaizki egin. Izan ere, Leire eta Maddalen euren mailetako txapeldunak izan ziren. Maddalenek 20 urte azpikoen artean parte hartu zuen; Leire, berriz, 17 urte azpikoetan aritu zen.

David Arnaiz, 15 urte azpikoen artean aritu zen eta txapelketan ondo hasi zen arren, bigarren borrokan kanporatu egin zuten.

Itziar Zabala hirugarren gelditu zen seniorretan; hiruk parte hartu zuten txapelketan.

# Xakelari bikainak

Gipuzkoako lehen mailako San Andres Xake Taldekoek denboraldi bikaina burutu dute. Joan den larunbatean, partida amaigabe batean, bi eta erdi eta bat eta erdi irabazi zieten Andoaingo Agustin de Leitza laukoteari.

Arratsaldeko 16:00etan ekin zioten partidari eta gaueko 22:30ak arte aritu ziren jokatzen.

Bi taldeek aukera berberak zituzten. Izan ere, irabaziz gero, Gipuzkoako preferente mailan arituko dira datorren urtean. San Andres xake taldeak igoera aldiko partidak jokatu beharko ditu. Hiru aste barru Urnieta edo Beraun B taldeen aurka jokatuko dute. Joan eta etorriko partida bana jokatuko dituzte eta hor erabakiko da datorren urtean Arrasateko bi talde arituko diren preferentean.

Laukotea, Eugenio de Andres, Juan Carlos Mayo, Roberto Villar eta Xabier Aspek osatzen dute.

ARRASATE KIROLAK

*Erantzuna badakizu, ekarri osteguna baino lehen Arrasate Pressera.*

*Hilaren bukaeran irabazleen artean zozketa egingo da zuzenean Mondrasport saioan, sari mundiala etxeratzeko.*

***Galdera:** Zein da TERNUA ren esanahia?*

Erantzuna:........................................

Izen-abizenak:........................................

Helbidea:........................................ Tel.:..........





# Euskara ikastaroak

Maila guztiak

EGA eta
ALFABETATZE

## Matrikula epea: otsailak 12

- Udalaren laguntzaz
- Beka sistema

## Informazioa eta matrikula:

ARRASATEKO ERDU
AEK EUSKALTEGIA
Garibai 14, 3
Tel.: 943 77 03 69

euskaltegi eta barnetegiak

AL ANDALUS (KULTURA ELKARTEA)

# "Ekintza ugari egiten dugu urtean zehar"

**Orain dela hamar urte sortu zen Al Andalus kultura elkartea, eta urteurren horretako ospakizunetan murgilduta dabil. Guztiaren berri *Carmentxu* Amor eta Pepa Iglesiasek eman digute.**



**— Nola sortu zen taldea?**

— 1990eko otsailean onartu genituen Al Andaluseko estatutuak. Hainbat elkartetako kideak elkartu ginen. Hasiera batean Abaroan egiten genituen batzarrak, non elkartu ez genuelako. Gero, aurrera eraman nahi genuen egitasmoaren berri jendeari ematen hasi ginen. Ondoren estatutuak onartu ziren, eta otsailaren 28an kiroldegian ospatu genuen Andaluzia eguna, Gasteizko andaluziarrak lagun genituela. Ekainean, berriz, Uriburu kalean hartu genuen egoitza, eta gero Zigorrolara joan ginen.

**— Zenbat bazkide zarete?**

— Bostehun eta hamar bazkide inguru gara. Guztien gainetik zuzendaritza batzordea dago, hamasei kidek osatzen dutena (lehendakariak, lehendakariordeak, idazkariak, diruzainak eta bokalek). Sailak ere baditugu: emakumeena, gazteena, kultura saila…

**— Zein egitasmo eramaten dituzue aurrera?**

— Lehentasuna hiru ekitaldik dute, eta horiek urtero derrigorrez egin behar izaten dira: Andaluziako eguna otsailaren 28an, Rozioko Amabirjinaren eguna uztaileko lehen igandean eta kultura astea. Baina horretaz gain hainbat talde daude, eta bakoitzak bere ekintzak egiten ditu: "García Lorca" antzerki taldea, "Al Andalus" txirigotena, "Sueños de Andalucía" dantza taldea, "Coro Rociero Al Andalus" koroa, "Alegría de la Sierra" rumba taldea… Eskulanak eta gimnasia egiteko aukera ere egoten da, besteak beste. Bestalde, ihauterietan play back jaialdia ere antolatzen dugu, eta erronka handia izaten da guretzat, aurreko urteetako jaialdia hobetu nahi izaten baitugu.

**— Hamargarren urteurrenaren barruan, zein ekitaldi egingo duzue?**

— Aurreko asteburuan hasi genituen ospakizunak. Larunbatean Lasarteko etxea gonbidatuko dugu. Anaiarteko bazkaria egin eta hainbat taldek beren ekitaldiak eskainiko dituzte. Urtero elkarte andaluziarren bat gonbidatzen dugu, baina aurten hamargarren urtea betetzen dugunez, urte berezia da. Horregatik bi gonbidatu ditugu: Santurtzikoa aurreko astean eta Lasartekoa datorren larunbatean.

## "Uriburuko egoitzan genituen beharretatik abiatuta eraiki genuen Zigorrolakoa"

## aste gazte

**■ KONTZIENTZIA ERAGOZPENA**

• Intsumisioa edokontzientzi eragozpenaren gainean zalantza edo arazorik baduzu, pasa zaitez Gazte Bulegotik eta bertan emango dizugu paperak tramitatzeko behar duzun informazioa.

**■ LANA**

• Disneyland Parisen harrera, garbiketa, taberna edo dendetan lan egiteko pertsonak behar dira. Epea: otsailak 2.

• Zizur Nagusiko Udaleko Musika Eskolarako bonbardino irakaslea behar da. Epea: otsailak 2.

• Sondikako Udalerako, arkitektua behar da. Epea: otsailak 3.

• Irungo Udalerako, Gazte Informazio Bulegoko informazio eta tramitazio laguntzailea behar da. Epea: otsailak 7.

• Nafarroako Parlamenturako, euskara itzultzailea behar da. Epea: otsailak 16.

• Atzerrian, gaztelania hizketarako laguntzaileak behar dira. Epea: otsailak 11.

**■ IKASTAROAK**

• Udaleko Gazte Zerbitzuak hainbat ikastaro antolatu du.

- Alboka ikastaroa. Urtarrilaren 29tik ekainak 17ra, larunbat goizetan, Arrasate Musikalen. Matrikula 3.000 pta / 2.000 pta ikasle edo langabeentzat.

- Txalaparta ikastaroa: otsailaren 11tik maiatzaren 13ra. Ostiraletan, eta larunbatetan, Musakolako Gazte Txokoan. Matrikula 2.000 pta.

**■ LEHIAKETAK**

• Udaleko Emakume Sailak, martxoak 8ko kartel lehiaketa antolatu du "emakume! Hartu hitza eta erabakia" lemapean. Epea: otsailak 18.

**Argibideak:**
**GAZTE ZERBITZUA**
**☎ 943 77 00 65**

## EVA EGIZABAL ("GIZAKIEN LURRA"KO ORDEZKARIA DEBAG[N

# *"Umeei laguntzeak er*

**Eva Egizabal 32 urteko arrasatearra da. Hortz protesigintzan egiten du lan, eta horregatik ezagutzen du gehienbat jendeak. Baina hemendik aurrera beste era bateko lanagatik ere egingo da ezagun. Izan ere, "Gizakien Lurra" fundazioan dabil mondragoetar hau. 1960an sortu zen erakunde hori Suitzan, eta duela hiru urte eratu zen Euskal Herriko ordezkaritza. Eva Egizabal izango da Debagoieneko taldearen zuzendaria.**

**— Zer da "Gizakien Lurra" eta "Bizitzarantz bidaia" kanpaina?**

— Umeei laguntzeko Gobernuz Kanpoko Erakundea da. Bere programetatik ezagunena "Bizitzarantz Bidaia" da. Garatu gabeko herrietan osasun arazo larriak dituzten umeak aurkitu eta, han tratamendurik ez badago, herri garatuetara ekartzen ditugu senda daitezen.

**— Zergatik egin zinen boluntario?**

— Beti gustatu izan zait besteei laguntzea, eta era honetako ekintzek izugarri erakarri izan naute. "Gizakien Lurra"ko hainbat jende ezagutzen nuen, eta horien bitartez sartu nintzen erakundean. Gainera, badago beste faktore bat: umeei zuzenean laguntzea. Horrek izugarri engantxatzen du.

**— Orain Debagoienean hasi zarete lanean. Zergatik aukeratu duzue eskualde hau Gipuzkoan lanean hasteko?**

— Nonbaitetik hasi behar, eta leku egokia iruditu zitzaigun. Egia esan, Gasteizkoak bazebiltzan ideia honekin, eta ni agertu nintzenean, asmo hori gauzatu egin zen. Orain jende gehiago behar dugu. Oraingoz hiru gaude eta lan talde bat osatu behar dugu. Debagoiena osoan egingo dugu lan, baina ordezkaritza Arrasaten izango da.

**— Zer behar da "Bizitzarantz Bidaia" programak aurrera egin dezan?**

— Ospitaleekiko elkarlana ezinbestekoa da, jakina. Gero, Foru Aldundiaren adostasuna ere behar dugu. Horiek biak badauzkagu Gipuzkoan. Baina familia hartzaile boluntarioak dira funtsezkoenak. Gaixorik dagoen umea familia batek hartzen du hemen dagoen artean. Baina ez da adopzioa, aldi baterako harrera baizik. Hori argi eta garbi izan behar du jendeak. Sendatzen direnean, euren familiekin itzultzen dira umeak.

**— Familia hartzailearen eta umearen arteko harremanak jarraitzen du gero?**

— Erakundearen bitartez, besterik ez. Harreman zuzena eten egiten da, arazoak galerazteko.

**— Arrasaten badago hartzaile izateko prest**

**"Mondragoetarrek primerako jarrera dute gureganako. Gogoz laguntzen digute"**






NEAN)

# antxatu egiten du”

**dagoen familiarik?**

— Bai, jaso dugu hainbat dei, informazio eske. Interesa behintzat badago. Baina umea ikustean hartzen da benetako erabakia, oso esperientzia hunkigarria da eta. Mondragoen arrakasta izango dugula uste eta espero dut. Beste toki batzuetan horrela izan bada, zergatik ez hemen?

**— Zer behar da familia hartzaile izateko?**

— Seme-alabak dituzten senar-emazteak izan behar dira. Baina funtsezkoena boluntario izatea da. Boluntario lana umearekin egotea da. Umea iristen denetik, ez da sekula bakarrik geratzen. Ospitalean gau eta egun berarekin egoteko txandak antolatzen dira, eta hori da boluntarioen lehen lana. Hortik aurrera, hartzaile izan zaitezke.

**— Lagundu nahi duenak bestelako aukerarik badu?**

— Bai. Beste eratako ekintzak ere egiten ditugu. Adibidez, postalak eta loteria saltzen dugu, eta dibulgazio lana egitea ere oso garrantzitsua da. Horrez gain, Gobernuz Kanpoko Erakunde guztiek bezala, kontu korronteak ditugu. Lagundu nahi duenak, ez dauka aitzakiarik.

**— Nolakoa da Mondragoeko jendearen jarrera?**

— Primerakoa. Jendeak gogoz laguntzen du. Ni, adibidez, Gabonetako postalak saltzen ibiltzen naiz eta sarritan gertatu zait jendeak besterik gabe dirua ematea, postala hartu barik.

**— “Gizakien Lurra” erakundeak Suitzan, Espainian eta Frantzian egiten du lan. Badago Euskal Herria besteengandik bereizten duen ezer?**

— Bai. Euskal Autonomi Erkidegoan, osasun sare publikoa gure esanetara dago. Orain arte Txagorritxu eta Gurutzetako ospitaleekin egin dugu lan, eta orain Arantzazuko Ama ospitalearekin hasi gara tratuan. Hori ez da beste inon gertatzen, eta izugarrizko abantaila da, tratamendua askoz ere merkeagoa baita. Suitzako zuzendaritza ere txundituta geratu zen hau jakin zuenean.

Nik zera esaten dut, hortik hasita, elkartasun handiagoa erakusten dugula hemen. ■




# ATB Programazioa

## OSTIRALA, 28

**13:30** Albiste aurrerapena
**13:35** Gatza eta Berakatza. Jose Ignacio Lasa Bergarako Batzokiko sukaldariak prestaturiko plater bat.
**13:45** Aurrez Aurre (errepika).
**20:00/20:30/21:00** Berriak
**21:30** Astebete. Maider Osaren eskutik asteari errepasoa egingo diogu.
**22:00** Soinuz Blai. Miren Gonzalezek aurkeztuta (errepika).

## LARUNBATA, 29

**13:30** Asteko programen errepika: Hamaika Magazin, Aurrez Aurre, Soinuz Blai eta Astebete.

## IGANDEA, 30

**13:30** Asteko programen errepika: Hamaika Magazin, Aurrez Aurre, Soinuz Blai eta Astebete.

## ASTELEHENA, 31

**13:30** Albiste aurrerapena.
**13:35** Gatza eta Berakatza. Jose Ignacio Lasa Bergarako Batzokiko sukaldariak prestaturiko plater bat.
**13:45** Astebete (errepika).
**20:00/20:30/21:00** Berriak.
**21:30** Mondrasport. Itxaro Zubillaga eta Xabier Urzelairen eskutik asteburuko kirol emaitzak jakingo ditugu.
**22:10** Gatza eta Berakatza (errepika).

## ASTEARTEA, 1

**13:30** Albiste aurrerapena.
**13:35** Gatza eta Berakatza. Jose Ignacio Lasa Bergarako Batzokiko sukaldariak prestaturiko plater bat.
**13:45** Mondrasport (errepika).
**19:20** Jolasplast. Mikel Lizarraldek aurkeztutako haurren lehiaketa.
**20:00/20:30/21:00** Berriak.
**21:30** Hamaika Magazin. Arantzazu Lagunillak aurkeztuta, osasuna, sexualitatea, horoskopoa eta hainbat kontutaz jakiteko aukera izango da.
**22:00** Gatza eta Berakatza (errepika).

## ASTEAZKENA, 2

**13:30** Albiste aurrerapena.
**13:35** Gatza eta Berakatza. Jose Ignacio Lasa Bergarako Batzokiko sukaldariak prestaturiko plater bat.
**13:45** Hamaika Magazin. Arantzazu Lagunillak aurkeztuta, osasuna, sexualitatea, oroskopoa eta hainbat kontutaz jakiteko aukera izango da (errepika).
**20:00/20:30/21:00** Berriak.
**21:30** Aurrez Aurre. Edurne Mujikaren eskutik Arrasatear interesgarriren baten bizimodua ezagutzeko aukera izango dugu.
**22:00** Gatza eta Berakatza (errepika).
**22:10** Soinuz Blai.

## OSTEGUNA, 3

**13:30** Albiste aurrerapena
**13:35** Gatza eta Berakatza. Jose Ignacio Lasa sukaldariaren eskutik.
**13:45** Aurrez Aurre (errepika)
**20:00/20:30/21:00** Berriak
**21:30** Ekilan. Alberto Gorritibereak aurkeztutako programa. Ekilore eta Olaker enpresak ezagutuko ditugu.
**22:00** Gatza eta Berakatza (errepika).
**22:10** Soinuz Blai. Edu Abasolok aurkeztuta.

## OSTIRALA, 4

**13:30** Albiste aurrerapena.
**13:35** Gatza eta Berakatza. Jose Ignacio Lasa sukaldariaren eskutik.
**13:45** Ekilan (errepika).
**20:00/20:30/21:00** Berriak
**21:30** Astebete. Maider Osaren eskutik asteari errepasoa egingo diogu.
**22:00** Gatza eta Berakatza (errepika).
**22:10** Soinuz Blai. Edu Abasolok aurkeztuta (errepika)



## Gatza eta Berakatza

**Sukaldaria:** Jose Ignacio Lasa (Batzokia jatetxea) Bergara.

| NOIZ | PLATERA |
|---|---|
| Astelehena 31 | Marisko salpikoia. |
| Asteartea 1 | Asturiasko Fabada. |
| Asteazkena 2 | Entrecota kabrales gaztarekin. |
| Osteguna 3 | Legatza almeja eta ganbekin, pikillo saltsarekin. |
| Ostirala 4 | Bakailua bexamel gainean berdura txeplarekin. |

beinke

GRUPO ARKAUZ 1950-2000

# 50 urte bete ditugu

**eta esperientziak posible egingo du,**
gaurko eta etorkizuneko bezeroei
hurrengo urteetan geure zerbitzua
modu zabalagoan eta profesionalagoan eskaintzea.

Eskerrik asko gugan sinistu duzuen guztioi.

ARKAUZ ELEKTRAGAILUAK
Asunción, 1 • Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA
expert

ARKAUZ ALTZARIAK
Araba etorbidea 20 • Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA

ARKAUZ SUKALDE INTEGRALA
Mitarte 3 • Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA
FAGOR

ETXE MOBEL ALTZARIAK
Araba Etorbidea 5 • Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE

Aretxabaleta - Arrasate

## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

• Etxe txiki eta merkea salgai Eibarren. Tel.: 943 12 71 04.

• Bergara erdialdean etxea salgai. Tel.: 943 76 54 24. Gauez.

• Etxebizitza salgai Oñatin, San Lorentzo auzoan. Tel.: goizez, 945 01 86 54, arratsaldez, 943 71 62 92.

### 3. Errentan emateko

• Etxebizitza alokagai Eskola Politeknikotik gertu. Tel.: 943 79 53 70.

• Ikasleentzat etxebizitza alokagai. Tel.: 943 79 39 02. Gauez deitu 21:00etik aurrera.

### 4. Errentan hartzeko

• Arrasate erdialdean edo San Andresen eta inguruan emakume batentzat etxebizitza behar da errentan hartzeko. Tel.: 606 86 71 97.

• Ikasle batek gela bat behar du otsailetik aurrera. Tel.: 943 83 36 57.

• Etxebizitza konpartitu batean, gela bat beharko nuke. Tel.: 943 79 68 00.

### 5. Etxeak osatzeko

• Etxebizitza osatuko nuke Arrasaten otsailetik aurrera. Tel.: 943 61 99 24.

• Pertsona bat behar da otsailetik aurrera bi gelako etxebizitza bat osatzeko, San Andres auzoan. Tel.: 943 83 36 57.

• Logela bat dut alokagai etxebizitza batean. Tel.: 617 72 47 83.

• Pertsona bat behar da langileen etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 77 15 67.

## GARAJEAK

### 7. Saldu

• Garajea salgai, Jose Luis Iñarra pasealekuko 18an, Altamiran. Tel.: 943 79 23 27. 14:00 - 17:00 eta 20:00etatik aurrera.

• Garajea salgai Kontzeziño kalean, 17 m²koa. Tel.: 943 79 46 88. 19:00 - 21:00.


**ETXEBIZITZAK**
1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

**GARAJEAK**
7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

**LOKALAK/ORUBEAK**
12. Saldu
13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

**LANA**
17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

**IRAKASKUNTZA**
20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

**MOTORRA**
23. Saldu
24. Erosi
25. Bestelakoak

**DENETARIK**
26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

**HARREMANAK**
34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak


**943 71 25 11**

**ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)**

**Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.**

### 9. Errentan emateko

• Garaje itxia alokatzen da Uarkapen Tel.: 943 79 13 97.

• Garajea alokatzen da Uarkape kalean. Tel.: 943 79 84 35.

• Bi garaje itxi alokatzen dira Arima zuri plazan, bietako bat bikoitza. Tel.: 656 75 91 98.

## LOKALAK/ORUBEAK

### 12. Saldu

• Akademia batek eskola partikularrak emateko ikasgela alokatzen du. Tel.: 943 79 18 70.

• Prentsa saltzen duen denda salgai edo alokagai Aretxabaletan. Tel.: 943 77 19 20.

### 14. Errentan emateko

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu, 100 m²ko eta bi solairuko lokala alokagai. Tel.: 943 79 42 65.

• Prentsa saltzen duen denda salgai edo alokagai Aretxabaletan. Tel.: 943 77 19 20.

## LANA

### 17. Eskaintza

• Neska gaztea prest umeak zaindu edo zerbitzari lanak egiteko. Tel.: 943 79 68 77.

• Emakumea prest arratsaldez umeak zaintzeko. Tel.: 943 71 53 74.

• Bi neska gaztek arratsaldez lan egingo lukete, umeak zaintzen edo bestelakoetan.

• Ile apaintzaile titulatuak lan egiteko prest. Tel.: 943 79 53 57. Maider.

• Neska umeak zaintzeko prest, arratsaldetan. Tel.: 943 71 53 74.

• Era guztietako lanak eta apunteak ordenadorez pasatzen ditut. Aukera zabala: letra eta tamaina gustukoena, marrazkiak, grafikoak, etab. Tel.: 646 09 53 38.

### 18. Eskaerak

• Pertsona bat behar da Aramaion (Uribarri auzoan) Intxaurrondo Elkarteko garbiketak egiteko. Interesatuok deitu 945 44 50 68 telefonora. Jabier edo Klaragatik galdetu.

• Jatetxe batean garbiketarako pertsona bat behar da. Tel.: 943 79 24 58.

• Gazte bat behar da taberna batean lan egiteko. Lana ordukakoa da, ikasleentzat egokia. Tel.: 656 72 14 82.

• Pertsona bat behar da haur bat zaintzeko. Interesatuok deitu 639 45 85 08 telefonora. Mertxe.

• Emakumea behar da taberna batean asteburuetan lan egiteko, 21:00etik 0 1:00ra. Tel.: 943 79 65 31. Tere.

• Oñatiko enpresa batean bi langile behar dira: autoen mekanikoa eta pintorea. Tel.: 943 78 19 50.

• Dendaria behar da Arrasaten, 20 urtetik gorako neska. Tel.: 943 79 44 88.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

• Ingeles filologia ikasten ari den mutilak, inegelesezko eskola partikularrak emango lituzke Mondragoen edo Eskoriatzan. Tel.: 943 71 47 85.

• Esperientzia eta EGA tilulua duen lizentziatuak Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eskola partikularrak ematen ditu, euskaraz nahiz gaztelaniaz. Tel.: 943 79 83 46.

### 21. Eskaerak

• Alemanierazko eskola partikularrak jasoko nituzke. Tel.: 943 79 84 44.

• Hirugarren DBHko eskola partikularrak hartuko nituzke. Tel.: 943 79 79 42.

• Logseko 2. mailako matematikako eta fisikako eskolak hartuko nituzke. Tel.: 943 79 79 69.

• 1.ko LHko eskola partikularrak emango nituzke. Tel.: 639 48 00 28. Arratsaldez eta gauez.

## MOTORRA

### 23. Saldu

• Renault 21 TXE salgai. A/A, E/E, D/D, C/C, remolkatzeko gakoa. 120 cv. Merkea. Tel.: 600 43 78 02. Urtzi.

• R-21 turbo autoa salgai.Egoera onean. Tel.: 943 79 15 96. Asier.

• Nissan Serena 1.6 LX bat saltzen dut. 1994ko otsailekoa da, gasolina erabiltzen du erregaitzat eta 8

lagunentzat du lekua. Zehastasun gehiago nahi izanez gero deitu lan orduetan 943 71 24 00 telefonora. Xabier.

• Yamaha XJ-600 salgai. Egoera onean, merkea. Bi maleta oparitzat. Tel.: 943 79 26 35.

• Kawasaki Volcan 500 cc. motorra salgai. 21.000 km.ditu. Pantaila, bizkar babesa, defentsak eta alarma, urrutiko kontrolagailuarekin. Kaskoa dohain. 535.000 pta, negoziagarriak. Tel.: 943 77 08 69.

• Fiat Tipo autoa salgai. 16 balbula. Matrikula: SS-AM. Tel.: 943 76 06 53.

• Vespino motorra salgai, gutxi erabilia. 50.000 pta. Tel.: 619 65 40 69.

## DENETARIK

### 26. Saldu

• 42 zenbakiko zeharkaldirako eskiak salgai. Lowa marka; berriak daude. Deitu 943 79 84 04 edo 943 79 27 39 telefonoetara. Andoni.

• Opel Comborentzat, auto gainean trasteak eramateko bi barra salgai. Merke-merke. Tel.: 943 79 15 96. Unai.

• Shin-tzu txakur kumeak salgai. Tel.: 946 84 26 86.

• Lau urteko bi logela oso salgai. Tel.: 616 81 15 96. Jose Luis.

• Bizikleta estatikoa salgai. Tel.: 943 79 12 46.

• Digitech RP7 balbe gitarra pedalera salgai. Prezioa: 66.000 pta. Tel.: 943 79 30 77. Liher.

• Boxer arrazako txakur kumeak salgai, pedigreearekin. Tel.: 696 05 73 46.

• Euskal artzai txakurraren kumea salgai. Hilabete eta erdikoa. Merke. Tel.: 943 79 60 48. Nerea.

• SWR Twelve Bass Combo Celestine marka duen 100 W-dun anplifikadorea eta Ibanez baxu elektrikoa bere kutxatilarekin batera, salgai. Ondo zainduta eta egoera onean. Tel.: 943 79 94 49. Oskar.

• Bulegorako altzariak salgai. Tel.: 943 79 84 35.

• Umeentzako kotxetxoa salgai. Prezio onean. Tel.: 943 79 71 52. Isa. Bulego orduetan deitu.

• Bigarren eskuko Eiccini 100 akordeoia salgai. Tel.: 945 40 33 63.

• Fondoko eskiak salgai, ekipo guztia, neurria 42, bi aldiz besterik ez ditut erabili. Tel.: 943 79 88 83. Mikel.

• Teknografo (marrazki taula) pare bat salgai, prezio onean. Tel.: 943 79 11 80.

• Soinu txikia salgai. Berria, zerosette. Solen afinatua. 190.000 pta. Tel.: 945 27 44 26.

### 27. Erosi

• Xoxoa disketxeak ateratako LPak erosten ditut: Lisker, Itoiz, Itziar, etab. Tel.: 943 52 65 77.

### 29. Eman

• Ehizako hiru txakurkume emateko. Bi hilabete baino ez dute. Tel.: 943 79 55 07.

### 31. Galdu

• Urrezko eskumuturrekoa galdu zait Larrea plaza eta San Viator Txiki inguruan. Aurkitu baduzu, deitu 943 79 81 50 telefonora, mesedez.

• Jokin Zaitegi plazan bi giltza-sorta galdu nituen. Sobre baten barruan zeuden. Aurkitu dituenak, mesedez, telefono honetara deitu dezala: 943 75 22 74. Arratsaldez.

• Plumifero urdin bat galdu dut azoka inguruan. Tel. 943 77 04 21.

• San Andres inguruan montura marroia eta aumento handiko betaurrekoak galdu nituen, orain dela 15 bat egun. Tel.: 943 79 45 16.

### 32. Aurkitu

•Urrezko katea dominarekin, Iñaki eta data jartzen duena, Udaltzaingoan dago jasota.

## HARREMANAK

### 35. Kontaktuak

• Gasteizera arratsaldeko 16:00ak aldera egunero autoz baldin bazoaz, gastuak banatuko nituzke. Tel.: 943 79 58 88. Maite, gauez deitu.

• Bartzelonako telekomunikazio enpresa garrantzitsuak inbertsorea behar du (10 milioitik gora) Tel.: 943 22 51 61. Iñaki.





1958. urte aldean itxura hau zuen Portaloi inguruak eta lehengo Mola Generala plaza zenak. Hasteko, hortxe aurre-aurrean eskuma aldean dagoena, Garibai Etxea da, Telefonikaren lehengo eraikina, orain Gazte Bulegoa dagoen lekua. Azpian duen hesia eta zuhaitza, berriz, Biteri Eskolenak dira. Ezkerretara begiratuz gero, Mondragoeko aintzinako harresia ikus daiteke; orain Kutxako bulegoak daude bere tokian. Harresi gaineko etxea, berriz, dorreak dituena, Resusta sendiaren etxea zen orduan. Familia hori Zerrajerako zati handi baten jabe zen. Orain, eraikin horretan, etxebizitzak eta saltokiak daude.

Etxe horren parean dagoen automobiletik gertu, bestalde, gasolindegia zegoen. 1985. urteko martxoan kendu zen handik.

Argazkiaren atzeko aldean ikusten duzuen moduan, San Frantzisko eliza dago. Haren ondoan, ezkerretara, Mantxon Etxea zena dago. Bere tokian orain Juan Karlos Gerra plaza dago. Mantxon etxearen azpian dagoena, bestalde, lehengo komun publikoak dira, orain 40 urte desagertu zirenak.

Ikusten duzuen moduan, Portaloia orain baino nahiko handiago eta zabalago ikusten da. Eta, orain hainbesteko zeresana ematen duten zuhaitzak eta eserlekuak falta dira.

***Argazkia :** Luzia Oiarzabal*
***Berriemalea:** Luzia Oiarzabal eta Jose Mari Balanzategi*

LASAGABASTER

LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

**Astra** Berria

# Teknologia eskubide bat da, ez pribilegioa.




Uste dugu ez duela zentzurik auto bat diseinatzeak, gutxi batzuen eskura egon behar badu. Horregatik teknologia, segurtasun eta erosotasun gorena duen autoa sortzea izan da gure erronka, baina mundu guztiaren eskura egon dadin. Opel Astra berria. Teknologia eskubide bat delako, ez pribilegioa.

**Serieko ekipamendua:** ABS elektronikoa lau gurpiletara, lagunduriko direkzio elektrohidraulikoa, korrrosioaren kontra 12 urteko bermea duen karrozeria galbanizatua, atzealdeko ardatza efektu direkzionalarekin, garaieran eta sakontasunean egoki daitekeen bolantea, gidatzailearen jarlekua garaieran egoki daitekeena, leihoak igotzeko sistema elektrikoa, itxigailu zentralizatua urrutiko agintearekin, tamaina handiko air bag-a gidatzailearentzat, lapurretaren kontrako geldiarazle elektrikoa, funtzio askotarako pantaila:



Motor hauek daude eskuragarri: 1.6tik 2.0 16v.-ra; turbodieselean 1.7 eta 2.0 DI 16v. Karrozeriak 3,5 atetan eta Caravan. Bukaera mailak: Club, Comfort, Elegance eta Sportive.

OPEL

INGENIARITZA ALEMANA ZURE ESK

TALLERES OLA

Olabarrena auzoa, z/g. Tel.: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn

TAKOLO AUTOAK, S.L.

Araba Etorbidea, 3.(Escatu pabiloia). Tel.: 943 79 05 86


PREZIORIK ONENEAN
MODU ONENEAN
ALTZARIAK
eta
OPORRAK
Kalitatezko egurrez egindako gazteentzako altzariei dagokionez, azken berrikuntza aurkezten dizuegu.
"Milenium"
modeloko altzari taldea erosita, astebukaera elurretan pasatzera gonbidatzen zaitugu.
Oraintxe bertan erosi eta 6. hilabetetik aurrera hasiko zara ordaintzen.
24 hilabetetan interesik gabe.
TODO Mueble
Kabía
Gipuzkoa Etorbidea, 28